



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILEKO  
DIPUTATUAREN FORU AGINDU PROIEKTU HONI BURUZKOA: ESKOLA  
KIROLAREN ARLOAN IKUSKAPEN PROZEDURA ONESTEA.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako Lurralde Historikoan eskola kirolaren ikuskapen prozedura eta antolaketa arautzeko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019ko martxoaren 20ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolean parte hartzen duten pertsona eta erakundeek haien betebeharrak betetzea, haien eskubideak bermatzea eta lege xedapenak betetzen direla ziurtatzea.
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak eskumenak ditu eskola kirolaren arloan eta, halatan, 23. artikulua honela xedatzen du: “lurralde historikoetan kirolaren eskumena duten foru organoek, bakoitzak bere eskumen-esparruaren barruan, eskolako kirolaren gaineko ikuskatze funtzioak egingo dituzte. Horretarako, eskolako kirolaren alorreko lege- eta arau-xedapenak betearazi egingo dituzte”.
<b>HELBURUAK</b>	Foru Agindu proiektuaren helburua da arau esparru bat ezartzea Arabako Lurralde Historikoan eskola kirolaren ikuskapenak bete behar duen antolaketa eta prozedura arautzeko.
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	Ez daude ordezeko konponbiderik.